

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Jose Ariztimuño, Aitzol (1896-1936)

Aitzolen heriotzaren 75. urteurrena dela eta Tolosako herriak gogoan du euskaltzale eta kultur eragile nekaezina. Bigarren Euskal Pizkundearen bultzatzaile sutsua izan zen Aitzol eta horregatik fusilatu zuten Francoren tropek Hernanin, 1936ko urriaren 17an.

El Día, egunkari elebidunean, eta *Euzkadin* ere artikulu ugari idatzi zituen, abertzaletasuna, progresismoa eta euskaltzaletasuna txertatzeko. Berezi, euskarekin zuen kezka handia eta Belgika, Estonia, Katalunia eta Proventzako kasuak aztertu zituen honako ondorio eraginkorrak ateratzeko. *La muerte del euzkera* liburua ere idatzi zuen. Garbi zeukan hezkuntza eta komunikabideak zirela euskara eta euskal kultura salba zitzaketan bi zutabe nagusiak eta horiei eman zien garrantzia. Iritzi artikulak, iruzkin kritikoak, erreseinak, euskal produkzioaren erreferentziak... argitaratu zituen aipatu egunkarietan. Gero *Yakintza* aldizkaria sortu zuen.

Baina Aitzolen ekimena ez zen horretara mugatu. Eusko Olerti Jaiak antolatu zituen, Euskal Antzerkiaren Eguna, Bertsolari Guduak, Euskadiko Nobela Saria, Euskarari Omenaldiak, Haur Euskaldunaren Eguna... Euskaltzaleak elkarteko zuzendari izendatu zuten eta euskararekin eta euskal kulturarekin



DANI BLANCO

zerikusia zuen guztiaren bultzatzaile bihurtu zen. Bigarren Euskal Pizkundeko hainbat poeta eta idazle elkartu eta hauspotu zituen. Horrela, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Loramendi, Jautarkol, Antonio M. Labaien eta beste asko sorkuntza lanetan jarri zituen, euskarak bere literatura propioa eta duina ukan zezan.

Aitzolen heriotza eta haren odoletik sortu ziren landareak gogoan izanik, ez dakit ez ote genukeen hitz egin behar berak amesten zuen aro berri batez: 1960-1980 inguruko Hirugarren Euskararen Pizkundez. Francoren garaian errepresio bortitza jasan ondoren, euskal baratzeak inoiz izan duen pizkundarik indartsuena ezagutu zuen: ikastolak, alfabetatze-euskalduntze eskolak, abeslariak, literaturan eleberrirako moderno eta poesia berritzaileak, bertsolariaren berrindartzea, herrietan antzerki gosea, umeei euskal izenak jartzea, argitaletxe berriak, euskarazko aldizkari eta komikiak, *Deia* eta *Egin* egunkari elebidunak, euskal irratia, laster etorriko zen Euskal Telebista ere. Eta baratze emankor honetan lan isila egin zuen hainbat jende: Elvira Zipitria, Imanol Urbietia, Joxantonio Ormazabal, Fermin Iraolagoitia, Cortés Izal, Jesus Atxa, Xabier Yaben eta beste hainbat. Aitzolek euskal baratzea ikustean, hauxe esango du berekiko: “Merezi izan zian lan hark guztiak”.

■

«
Aitzolek euskal baratzea
ikustean, hauxe esango du
berekiko: ‘Merezi izan zian
lan hark guztiak’
»

TXANDAN

Edu Zelajeta



Aitor dezadan, lehenik eta behin, Virginia Hamilton Adair zenari zutabe honen izenburua ebatsi diodala; hain zuzen, Virginiak lau-orogeta hamahiru urte zituela argitaratu zuen bere lehen liburutik hartu

dut mailegua: *Ants on the Melon*. Izan ere, horrelaxe irudikatu nituen aurrekoan Londongo Konferentzian zeuden munduko agintari gorenak, Libiako etorkizunaz solasean, Libiako ordezkariarik gabe.

Libiako herritarrek babestea omen da botere-tsueneak erabakitako interbentzioaren helburu nagusia. Demagun –Virginiak bezala, begiak ongi-

Inurriak
meloian

ongi itxita– zinezko operazio humanitarioa dela: zergatik ez dute gudarosterik bidali Boli Kostara, Yemenera edota Bahrainera, bertako herritarrak ere ageriko arriskuan daudela jakinik?

Itsua zen Virginia bere liburua idatzi zuenerako. Hala eta guztiz ere, errealitatea ikusteko aparteko gaitasuna erakutsi zuen, besteak beste, metafora ederren bidez: pertsonak munduan gaude inurriak meloian nola, zukuaren erdian horditurik. Poeta duela zazpi urte hil bazen ere, nago inork ez dida-la hobeki deskribatu meloi zaporeko giza eskubi-deen kontu hau. ■